

DIONISIO DE OÑATIBIA

M E D I C O
Harrapari 22-12
VILLARREAL DE URRECHUA
(Guipúzcoa)

Urretxu-tik 1.973-ko Itazilla-ren 17-an.

Arizmendiarrjeta-tar Don Jose maria.

Arrasate n.

Adixkide ta apaiz agurgarria: ara ni emen berriro, ta oraingo ontan, euskera ren laguntza-eske. Jakingo dezu noski, Naparroa-ko Diputazioa edo Aldundegia k, erri-eskoletan euskera erakustea erabaki zuala, ta langintza ori nere anaiaren bizkarran gain utzi zuala. Ori ala izanik, Naparroa n jo ta ke ari dira euskera erakusten.

Naparroa n egiten ari dirana, Gipuzcoa n egiñ eziñik ez zegoala pentsatuz, nere anai ori asi zan zeozer egiñ nayian, ta baita lortu ere uste ez zuana, au da, erri eskoletako ate gu ziak zabal-zabalik uzten dituztela, berak, irratiz ta erakutsitako monitor en bidez, euskera erakusteko aukera daukala; ta ori, Gobernadore ta Ministerio de Ed. y Ciencia-ko ordezkariaren baimenakin.

Ara ba, zallena uste zana nola lortu dan. Euskalerriya k ez du sekulan olako aukera bikañik euki, ta onek dun garrantzia neurri-eziñekoa dala esan leike; Euskera ren etorkizunerako biderik onena, onela osatuko bai-da Ikastola en ekintza, erri-eskola guziak gure eskuetan jartzen dirala. Erri-eskolan ondoren etorriko dira noski Eliz-Ikastetxe edo Colegioak, Escuela Profesional, Instituto ta gañerakuak.

Nola diran gauzak; zallena lortu da, ta orain errexena lortu eziñik, au da diru gora-bera. Ta bear dan dirutza ez uste izan lortu eziñeko diru pilla aundi bat denik, bai-zera.

Nere anaya ren antolaketa onela den; erri-eskoletako irakasle geienak erdal-dunak diranez, eziñ ba irakasle oiek egunero sakondu ta aztertu irratiz eman, diran erakusketak; orotarako nere anaiak gertatu ditu, ta gertatzen ari da erri bakoitzean, emakume euskaldun gazteak, erri eskoletara joanaz, irratitik entzundakua aztertu ta sakontzeko. Ta emen dator koxka: monitor oiei, beren eguneroko lan-saria, ordu erdiko lan-gatik iru milla laurleko ordaindu bear; Ministerio de Edu=

cación y Ciencia k ezin ordaindu, bere presupuesto tan ortarako dirurik ez daukalako. Gauzak ala egonik monitor entzako diru ori Gipuzkoa ko Aldundegi ta Caja de Ahorros Provincial-en gain joango zala uste zan, ta asieran baietzko itza eman ere egin zuten, baina egunak aurrera dijoaz, ta benetako laguntza eskeintzik ez dator. Aste ontan ~~in~~ zirt edo zart egin bearra dago. Ta gora-bera ori dala-ta, ara nun daukazun eskutitz onen arrazoa.

Donosti ko diru-etxe oiek bizkarra jasoz beren laguntza ukatuko ba-luteke, zergatik ez jo beste dirudunen ateetara? Adibidez, ~~de~~ FAGOR-CAJA LABORAL POPULAR-en ateetara? Gero ikusiko dezun bezela, ez da beste munduko dirutza, diru gutxikin zuzentzeko egina bai dago; baina diru ori emateko ere, benetako euskalduna izan bear...- Askok ez bai-dute ikusten ekintza onen garrantzi aundia, ez dira jabetzen euskera-rentzako ze-aurrerapena izan leiken; ta orrela itz onak besterik ez dituzte eskeintzen. Diru laguntza au zuzendu ezinikoa ez dala ikusi dezazun, ara emen nola dauden gauzak:

Asteko, aurten, eun monitorrak, bost eun eskoletan lana egingo dute, bakoitzak bost eskola bere gain eukirik. Eskola bakoitzean naiz-ta irratitik egunero entzun, monitorra astean bein azalduko litzake.

Beraz eun monitorrentzat, bakoitzarentzat, illero 3.000 laurleko dala, illian euen-entzat 300.000 laurleko dira, ta Ilbeltze-tik Mayatzara bost illabete izanik, danera 1.500.000 laurleko dituzu. Ara ba zer bear dan aurtengo ikastaroak.

Datorren urtean, bost illabete-ren lekuan, zortzi illabete izango dira, ta eun monitorren orde berreun monitor; oiek mila erri-eskoletara irixteko. Bearko dan dirutza: 200-entzak 3.000 lauleko, illian 600.000 lauleko, ta zortzi illabetetan 4.800.000 laurleko.

Dirutza geyo ez dala, ez ^{da} bildurtu bearrik, ta ez dut uste aurrera jo gabe gelditu bear litzakenik. Gañera diru ori, elkarte bakoitzak propaganda sallean sartu lezake; eguneroko irrati sayuan esango bailitzake, zeñen babesian, zeñen laguntzari esker jarduten duten, euskera erakusten.

Euskera-ren zabalkunderako, diru ori sortu bear da nola edo ala. Elkarte askok ez al dute urtero askoz eta askoz diru geyago banatzen beren zabalkundeetan?

Ta orain Gipuzkoa n egin nai dana, ondoren Bizkaya n ta Araba n egin bearra dago.

Euskera ren zabalkunderako, ba-du nere anayak eskuetan beste lan-tresna egoki bat: abestuz, dantzaz, ritmoz eta jostatuz, euskera erakusteko bide berri bat sortu du, ta ori zine-pelikunan atera leike, baz

DIONISIO DE OÑATIBIA
M E D I C O

VILLARREAL DE URRECHUA
(Guipúzcoa)

ter guzietan/erakusketak egiteko (enseñanza audio-visual). Película ori kolore bizietan ateratzeko milloi bat inguru eskatzen dute. Película bertan azalduko litzake, asieran edo bukaeran adieraziz, zeñen babesian edo zeñen laguntza bidez, pelikula ori egiti al izan dan, eta orrela, laguntzalleentzako ere propaganda edo zabalkunde ederra li -

tzake dudik gabe. (1)

Beste bi gai abek ere gelditzen dira: Bata irratia ordaindu bearra (merkea dala diote), eta azkenik, liburua edo gramática alegia. Idazti au lau zatitan atera da, bertan bi urteetako ikas taroak daudela. Zati bakoitza bost duruan ta dana ogei duro; bañan au ikasle bakoitzak erosi bearko luke, berak geldituko bai dira liburua-ren jabe.

Zuk ikusi ba inguru ortan zer egin leiken. Aste ontan jakingo degu zertan gelditzen diran Donosti ko gora-bera oiek, eta iya danon artian asmo bikaifi au aurrera eramateko modua egiten degun.

Iaxter arte beraz, eta GABONAK gaffian ditugunez:

EGUBERRIZ ONGI

URTEBERRIZ OBEKI.

Amstrik

(1) Nai izan ezkeru, Cyartzun go neska-mutill koxkorrekin azalduko litzake anaya Arrasate n, azalpen bat egitera, nola erakusten dun EUSKERA, abestuz, dantzaz, ritmoz eta jostatuz.

Amstrik - 19-12-23

*cuando me... Joleta de FC
referencia a la...
reducida en... - ...*